



Europako herrien
subiranotasunaz
sinposiuma antolatu
du Euskaria elkarteak / 7



Ieltsin Karabakh
Garaira gerra
zibila geratzeko
asmoz joan da / 15



uanma Bajo Ulloak
atzo aurkeztu zuen
Zinemaldiko euskal
filme bakarra / 21-22

Egunkaria

Larunbata, 1991ko irailak 21 / II. urtea / 246. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

EUSKALDUNTZEA

Euskara ikasteko dei egin dute ospetsuek

AEK-k euskal kultur eta kirol munduko hogeiren bat pertsona bildu zituen atzo Bilbon euskararekin izandako esperientziak azal zituzten. Euskara ikastea «kultur errealitate zabal baten partaide izateko bidea» dela esan zuen AEK-k. / 8

'Akordioari bai' manifestazioa gaur Donostian

Arratsaldeko bostetan abiatuko da Donostiako Ondarretatik 'Akordioari Bai' manifestazioa. Lurraldea koordinakundeak «azken ahalegina» eskatu zuen atzo, «hainbeste urteko borrokaren fruitua den akordioa ziurtatu eta burutu ahal izateko». Manifestazioa isilean egingo dela gogoratu du Lurraldeak, baina jai giroko elementuen bidez alaitzea proposatu du, txaranga edota trikitiarekin. / 6

Euskadiko Ezkerra gaur hautsi daiteke Biltzar Ttipian

Gaur Gasteizen bilduko den EEko Biltzar Ttipiak (BT) konfidantza kenduko die Añamendiko bost parlamentariari. Berrikuntza Demokratikoa sektoreko partaideek —alderdi buruzagitzakoak— «behin-betiko» erabakia hartzeko premia azpimarratu dute eta itxura guztien arabera erabaki horrek haustura ekarriko du Euskadiko Ezkerrera gaur bertan. / 5

PSEk lau kartera baino gehiago nahi ditu Jaurlaritzan

EAJ eta PSOE sekretuan ari dira negoziatzen Jaurlaritza berriaren osaketa. Jesus Egi-guren, PSE-PSOEko Gipuzkoako idazkari nagusiak eta Jon Azua lehendakariordea bat etorri ziren negoziaketetan zailtasunik ez dela izango esaterakoan. Egiguren, ordea, EAJ eta Auzmendik utzitako lau kontseilaritzak baino gehiago eta garrantzitsuagoak nahi dituztela gehitu zuen. / 4

Amedo eta Dominguez zigortuz estali du epaiak GAL auzia

Hamabost urtetan kalean egon daitezke zigorra 108koa izanda

Jose Amedo eta Michel Dominguez Espainiako poliziek atzo entzun zuten Entzutegi Nazionalaren epaia. 108 urteko gartzela zigorra polizia bakoitzarentzat, 'Consolation' eta 'Batxoki' tabernetan eragindako sei hilketak saioengatik. Gaizkile elkarte batean aritzea eta nortasun agiriak faltsutzea ere leporatu die epaiak. Garcia Goenaren hilketan errugabe direla dio epaiak. Honen arabera, GAL ez da talde terrorista eta ez dago frogatzerik Estatuaren egituretan sartuta dagoenik.

108 gartzela urte horietatik, hamabost egin eta kalean egon daitezke Amedo eta Dominguez, legez 30etik gora ez bait da betetzen eta ondo portatuz zigorrak murrizten bait dira.

EAKo Joseba Azkarragaren iritzian Entzutegiak leialki bete ditu Madrilgo Gobernuaren aginduak, sententzian «Estatuaren erantzukizuna ezabatuz». EAJko Joseba Egibarren ustez «Amedo-GAL binomioa zaila da banatzen». / 4



Michel Dominguez eta Jose Amedo poliziak, epaia entzuteko unean.

Tankeak Kroazian barneratuz doazen bitartean, Europako estatuak gelditu

Beograd-etik irtendako tanke eta ibilgailu blindatuak Kroazian sartu ziren atzo Eslavonia aldetik, eta hiru herri txiki hartu zituzten. Armada Federalak, gerrilari serbiarren laguntzaz, kroaziarrek ezarritako frontea hautsi eta Osijek hiriko zati bat «askatu» zuen.

Jugoslaviako krisia kezka bizia sortzen ari da nazioarteko erakundeetan. Javier Perez de Cuellar Nazio Batuetako idazkari nagusiak adierazi zuenez, Jugoslaviako gerra zibilak «gaur egun munduan bizi den bake giroa» hautsi dezake. Era berean, Europako Komunitateko eta Mendebaldeko Europaren Batasuneko ordezkariak Jugoslaviari buruz hartutako erabakien berri NATOk Kontseiluan eman zuten. / 14



Soldadu federalak, Eslavoniako ekintza batean.

SRDJAN SULEJMANOVIC

BESTERIK

G I Z A R T E A

ETBk udazkeneko programazio berria aurkeztu zuen atzo Donostian / 10

E K O N O M I A

Bilboko Portuan berehala hasiko dira zabalketa lanekin / 11

N A Z I O A R T E A

Marokkotik 170.000 lagun inguru abiatu dira Sahara Mendebaldera erreferendumean parte hartzeko asmoz / 15

K I R O L A

Eskubaloia ihardunaldia bertan behera ASOBALek hartutako erabakiaren ondorioz / 19